



BEZERO KANALAK

Komunikazioa bezeroarekin telefonoz, webgunearekin eta sare sozialen bidez egingo dugu. Sare sozial guztiak adibidez, instagram-a, facebook-a eta abar. Horretaz aparte, webgune bat egongo da interneten edozein zalantza argituta eduki ahal izateko, batzuetan lanpetuta egongo gara eta ezingo dugu dei guztiak hartu baina gure lehen komunikazioa deiz edo aurrez aurre egitea gustatuko litzaziguke, hurbilagokoa baita, baina ezinezkoa bada, webgunea sortuko dugu, baita bezeroak gure instalazioak eta gure langileak nolakoak diren ikusi ahal izateko ere.

Hemen zehazten dira erabiliko ditugun kanal guztiak:



Telefonoz: Uste dugu gehien erabiliko dugun kanala telefona izango dela. Bi harreragile egongo dira eta beraiek dira deiak erantzungo dituztenak.

Bezeroek enpresara dei dezakete galderak egiteko edo eskaintzen ditugun produktu eta zerbitzuei buruzko informazio gehiago lortzeko.



Webgunea: Webgune bat sortuko dugu, bezeroa gurekin kontaktuan jarri baino lehen informazio ikusteko/ bilatzeko eta gure instalazioak ezagutzeko. Mezu elektronikoak bidaltzeko aukera edukiko dute galderak egiteko edo produktu eta zerbitzuei buruzko informazioa jasotzeko.



Sare sozialak: Sare sozialak ere edukiko ditugu, gure funeraria gehiago zabaltzeko eta bezeroei hurbiltzeko, adibidez, facebook-a, instagram-a eta abar. Bezeroen zalantzak kanal honetan argituko dira.



Zuzeneko erlazioa: Kanal hau ere asko erabiliko da. Bezeroa funerariara etortzen denean pertsonalki arreta emango zaio. Bezeroari behar duen informazioa emango zaio eta dauzkan zalantzak argituko zaizkio.